

Donostia, 2017ko abenduaren 15a

### IDAZKARI NAGUSIARI

BIDEBIETA INSTITUTUAREN ITXIERARI ETA AUZOKO ZERBITZU PUBLIKOEN INGURUKO ERANTZUKIZUN EZARI BURUZKO  
KONTROL MOZIOA

Naiara Sampedro Pérez EH Bildu udal taldeko zinegotziak eta Amaia Martin Garin Irabazi Donostia udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikuluan oinarrituta, KONTROL MOZIO hau aurkeztu dute, Bidebieta Institutuaren itxierari eta auzoko zerbitzu publikoen inguruko erantzukizun ezari buruz, abendu honetako PERTSONENTZAKO ZERBITZUEN BATZORDEAN egindako interpelazioaren ondorioz.

### JUSTIFIKAZIOA

Aurreko azaroaren 16an, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren iragarpenaren berri eman zuen prentsak: 2019-2020 ikasturtean Bidebieta Institutua ixteko hartutako erabakiaren berri, hain zuzen ere. Ingurunean DBHko eta Batxilergoko prestakuntza ematen duen ikastetxeko publiko bakarra da; zehazki, bigarren hezkuntza eta batxilergoa ikasten ari diren 180 ikasle donostiarri ematen die zerbitzua.

Albiste horren aurrean, Bidebieta auzoak, ikastetxearen zuzendaritzak eta hezkuntza komunitateak beren ondoeza agertu dute, erabaki horren ondorioz, Bidebietak ezinbesteko zerbitzua galduko lukeelako: hezkuntza publikoa jasotzeko eskaintza.

Izan ere, Bidebieta Institutuaren proiektuarekin bat datozen 180 familien eta auzoko gainerako bizilagunen itxaropen eta aurreikuspenak bertan behera geratu dira Eusko Jaurlaritzak hezkuntza zentro hori ixteko asmoa duela jakin ondoren. Antza denez, proiektu horren xedea zen institutuaren bi espazioetatik bat zaharberritzea eta birgaitzea, DBH eta Batxilergoa eraikin bakar batean bateratzeko; ikasle, senide, irakasle eta irakasle ez diren langileentzat irisgarri izango den eraikin bakar batean, hain zuzen.

---

Ijentea, 1, 20003 Donostia / San Sebastián

Uste dugu Donostiako Udalaren erantzukizuna dela donostiarren interesak eta eskubideak babestea, eta herritarrekin eta administrazio eskudunekin batera lan egitea herritarrek zerbitzu publiko guztiak eskuratzeko aukera dutela ziurtatzeko.

Alabaina, nahiz eta Udal Gobernuak behin eta berriro adierazten duen hiri hezitzaileago, irisgarriago eta parte hartzaileagoa eraikitzeko asmoa duela, Udal Gobernuak pasibo jarraitzen du auzoetako beharrezan eta zerbitzu publikoak eskuratzeko dituzten mugen aurrean.

Egoera horren aurrean, Udal Gobernuak eta alkateak jarrera irmoa agertu behar dute hezkuntza publikoaren alde, eta eskueran dituzten baliabide guztiak jarri behar dituzte institutua ez ixteko.

Horregatik guztiagatik, honako kontrol mozio hau aurkezten dugu:

#### KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio eskueran dituen baliabide eta bitarteko guztiak jar ditzala Bidebieta Institutua ez ixteko.
2. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio bil dadila Bidebieta Institutuko zuzendaritzarekin eta auzoko hezkuntza komunitatearekin, Bidebietari eta inguruko auzoei zerbitzua emango dion hezkuntza proiektu publikoa aztertzeko.
3. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio Eusko Jaurlaritzaren aurrean babestu dezala Bidebieta Institutuak ematen duen zerbitzua, eta, orobat, adostu dezala auzorako hezkuntza proiektu publiko eta kalitatezkoa.
4. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio antola dezala auzotarren bilera ireki bat Bidebietan, institutuaren gaur egungo egoera zein den eta Udal Gobernuak zer gestio egiten ari den azaltzeko eta jakinarazteko.

---

Ijentea, 1, 20003 Donostia / San Sebastián

Sin.: Naiara Sampedro Perez,  
EH Bildu taldeko zinegotzia.

Sin.: Amaia Martin Garin,  
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia.